

MISTERIOA ARGITU

EGOERA ARRAROA DA.

ISTORIO BAT ASMATU.

1. EGOERA



Euskaltegiko klase bat itxita zegoen eta ezin zen ireki.

Barnean gizon baten oihuak entzuten ziren.

Klaseak ez zuen leihorik.

Atea hautsi zutenean, bi arratoi txiki aurkitu zituzten ate ondoan hilda eta altzari gehienak hautsita.

Gizona lurrean etzanda zegoen, konortea galduta.

Plastiko errearen usaina zegoen klasean.

2. EGOERA

Maria Urrutia etxekoandrea da eta bi seme-alaba ditu.

Lehengo egun batean baratzean zulo bat egiten ari zen porruak aldatzeko, eta metalezko kutxa bat aurkitu zuen lurrian. Berehala auzokoarengana joan zen. Auzokoa kutxa ikus-tera hurbildu zen. Baina bapatean gogoratu zen lapikoa sutan zeukala eta sua itzaltzera joan zen korrika. Itzuli zenean, harria bezala gogortua eta aurpegian beldurra zuela aurkitu zuen Maria. Kutxari begira zegoen lotan bezala.

Auzokoak kutxa ukitu zuen. Bero-bero zegoen. Ireki eta hauts urdina besterik ez zuen aurkitu.


Maria ospitalera eraman zuten. Esnatu zenean, ez zen ezertaz gogoratzen. Kutxa komi-saldegira eraman zuten. Baina hurrengo egunean han ez zen ageri.



3. EGOERA



Hiri haundi bateko bide nagusian mutiko txiki kaskamotz bat biluzik doa korrika eta farrez. Pozik dagoela dirudi, nahiz eta eguraldia oso hotza izan. Eskuan argazki bat darama.




4. EGOERA


Pakete bat bidali zuten Euskaltegia. Jaime Zufiriarentzat zela zioen gainean.

Inork ez zuen ezagutzen Jaime Zufiria hori. Ez zen hango irakaslea, ezta ikaslea ere.

Paketea goizeko irakasleen gelan utzi zuten eta hurrengo goizerako ez zegoen han.



5. EGOERA



Bigarren Gerrate Mundialean gertatu zen.

Alemanak herri frantses batean sartu zirenean harrituta geratu ziren. Herriak hilik zegoela ematen zuen.

Ez zen biolentziaren aztarnarik ageri inon. Jendea lurrean zegoen zerraldo hilda. Denak irri berezi eta makabroa zuten ezpainenetan.

Hildako batzuk likido berde bat zuten aurpegian.

Oraindik bizirik zegoen mutiko bat aurkitu zuten. Ez zuen mingainik eta ezin zuen hitzegi. Zerbait galdetzen ziotenean, behatz batez zerua erakutsi eta lurrean V bat idazten zuen.

Kapitainak ez zekien zer egin; zer pentsatu ere ez. Baina, bere soldaduen siniskeriei jarmon eginez, ezer ukitu gabe utzi zuten herria.

Ez zuen parterik eman. Hala ere, berria zabaldu egin zen, baina ez zen inor hurbildu.

6. EGOERA

Belagoako txabola baten inguruan, pertsona batzuren zapata-aztarnak ikusten dira. Txabolaruntz doaz.

Baina txabolan ez dago inor; txakur bat eta liburu batzu besterik ez.

Etxetik ateratzen den arrastorik ere ez da ikusten.

